

# Industria 4.0-ren erronkak eta pertsonen kapazitatea

---

---

Joan den maiatzaren 7an, **IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolan topaketa birtual** bat antolatu genuen **industria 4.0-ri** lotutako proiektu teknologikoetan oinarrituta, industria-inguruneko hiru errealitate eta aro digital honetan erakundeen arlo desberdinek dituzten erronkak eta horiek osatzen dituzten pertsonen trebakuntzan duten eragin zuzena ezagutzuz.



**Javier Gordo (RPK Group-eko zuzendaria), Gorka Unamuno (Ideko Zentro Teknologikoko ikertzailea) eta Aitor Ginto (Ibarmiarako Prozesuen Ingeniaria)** izan genituen solaskide, eta 4.0 teknologien ezarpenean eta garapenean murgilduta dagoen edozein erakunderentzat funtsezkoak diren galdera batzuei erantzun genien, erakundearen barruan egiteko eta pentsatzeko modu berriekin lerrokatutako ezagutza berriak sartzearen garrantzia eta beharra ulertzen laguntzeko.

---

**Javier Gordoren** esanetan, **RPK Group** bezalako enpresa batentzat beharrezkoa da **berrikuntzaren, teknologiaren eta ekoizpen-prozesuen zati guztiak lerrokatuta egotea.**

**Industria 4.0 gaitzeko teknologiek aukera ematen dute prozesuetan hobetzeko, datuak denbora errealean izateko, erabakiak askoz arinago hartzeko... *"must bat da, hain globalizatua dagoen merkatu batean egon nahi badugu. Enpresa bakoitzak bilatu beharko du zein teknologia digitalizatuk ekarriko dion baliorik handiena; gainera, eraldaketa digitalak aldaketa kultural garrantzitsua dakar".***



Creación de  
Business Intelligent:  
analítica de datos en planta

**Javier Gordo**  
Director  
RPK GROUP

**IMH** INGENIARITZA DUALAREN  
UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA  
DE INGENIERIA DUAL

ematen zaizkizu  
Universidad  
del País Vasco  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Paradigma-aldaketa horrek berekin dakar teknologia berriekin lerrokatutako ezagutza berriak eskuratzea. **RPK Group**-en talentu berria sartzearen eta erakundeko pertsonak trebatzearen aldeko apustua egiten dute, **IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolak** emandako **Fabrikazio Digitalaren Masterra** delakoaren bidez.

***"Teknologia berriak eta globaltasuna ulertzen dituzten pertsonak behar ditugu. Gure kasuan, master hau egiten aritu den pertsonak ikuspegi hori eman digula ikusi dugu, oso ondo ezagutzen du gure fabrikaren barne aldeak, eta orain teknika berriak zein diren trebatzen ari da. Zer erronka jar ditzakegun martxan proposatzen digu; teknologia eta teknika horietako zeinek lagun diezaguketen gure prozesuak optimizatzen, non eta non ezin dugun automatizatu fabrika adimendun hori izatera iristeko".***

---

**Gorka Unamuno Ideko Ikerketa Zentroko ikertzaileak** adierazi digunez, **Danobatgroup** osoan garaiz konbentzitu ziren industria 4.0 ez zela aukera bat, behar bat baizik, jauzi teknologiko eta estrategiko bat egiteko aukera emanez.



Errealitate berri horren aurrean, eta ingeniari elektronikoa gisa, jakin zuen bere profila garatu behar zuela teknologia berriekin bat egiteko.

*“Nire kasuan, soslai sendoa nuen tronika atalean, kontzeptu mekatronikoan, baina konturatu nintzen industria 4.0ekin informatikak garrantzi handiagoa hartzen duela. Kontzeptuaren jauzi handi horrek teknologietan eguneratzera behartu ninduen, zehazki industriaren digitalizazioaren kontzeptuan, nire profila egokituz ”.*

Enpreetan profilak gaitzeko erronkaren aurrean, **IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolak** emandako **Fabrikazio Digitalaren Masterra** egitea aukera bat izan da ezagutzari eta esperientziari dagokienez jauzi egiteko.

**Ibarmiaren** kasuan, **Aitor Gintok**, prozesuen ingeniari gisa, aipatzen du bezeroen barietateak industria 4.0-ren munduan sartzera bultzatu zituela. Industria horren eta teknologia berrien aldeko apustua egiten zuten bezeroen eskakizunen ondorioz, gero eta datu-eskari gehiago izan zituzten, eta arlo horretan aurrera egin behar zutela ikustarazi zien.

*“Zentzu honetan poztu egiten gara laster hasi garelako eta posizio hobean gaudelako. 4.0-a hainbat teknologia kontektatzea da, bilakaera kulturala”.*



**Cómo impulsar la Transformación Digital en una Pyme**

**Aitor Ginto**  
Ingeniero de procesos de digitalización  
IBARMIA

**IMH** INGENIARITZA DUALAREN  
UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA  
DE INGENIERIA DUAL

enpresa zabal zazu  
Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

Enpresen profil kualifikatuen beharra nabaria da; aitzitik, egun beharrak asetzeko teknologia hauetan prestatutako perfilen gabezia dago, Aitor Gintoren esanetan, normala da prestakuntza falta ikustea.

*“Hainbat trebetasun konbinatu behar dira, konbinazio hori berria da eta, gainera, etengabeko bilakaeran dago; beraz, normala da historikoki horri buruzko prestakuntzarik ez izatea. Gainera, belaunaldi berriek arlo horretan ezagutza teknikoak eman baditzakete ere, uste dut zaila dela teknologia enpresa-ikuspegiarekin konbinatzea, ikuspegi jakin bat eskatzen baitu, eta, alde horretatik, uste dut IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolako Fabrikazio Digitalaren Masterrak bi ikuspegi horiek konbinatzen lagundu duela”.*

Topaketa birtualean, beraien erakundeetan gauzatzen ari ziren proiektu teknologikoak zuzenean entzuteko aukera izan genuen, eta 50 parte-hartzaileen artean egindako galdera tekniko bakoitzari erantzun zioten hizlariak, eta bakoitzaren esku jarri zuten arlo horretan duten profesionaltasuna eta ezagutza.

Zalantzarik gabe, beraien eta gurek, Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskola garen aldetik, partekatzen ditugun oinarritzko hiru printzipio daude.

Industria 4.0-k kultura-aldaketa, pertsonen trebetasunak berregokitzea eta prestakuntza emateko modalitateak konbinatzea eskatzen du.

Ilde horretan, IMHk enprekin konektatuta jarraitzearen eta ezagutza teoriko-praktikoak lerrokatzen jarraitzearen alde egiten du, eskaera gehien dituzten etorkizuneko profesionalak prestatzen jarraitzeko helburuarekin.

Fabrikazio Digitalaren Masterraren bidez, enpresek industria 4.0-ren esparruan duten errealitate berriari erantzuten diogu. Horretarako, ikuspegi globalean eta teknologia berrietan trebatzen dugu profesionala, eta gaitasun horiek beharrezkoak dira industria-iraultza honen erronkak zuzentzeko.

IMHn hurbiltasunaren, berrikuntzaren eta teknologiaren aldeko apustua egiten dugu, gure eskaintza akademikoa inguruko errealitateetara egokituz. Prestakuntza dualean aitzindari garenez, testuingurua ulertzen dugu, eta, beraz, malgutasuna, arintasuna eta egokitzapena sartzen ditugu gure prestakuntza-ereduaren elementu bereizle gisa.

